

Ipar Euskal Herriko Kultur Guneak (1920-1940)

(Cultural Centres in Ipar Euskal Herria
(1920s - 1940s))

Hernández Mata, Amelia

Eusko Ikaskuntza. M^a Díaz de Haro, 11-1^o. 48013 Bilbo

BIBLID [1136-6834 (2003), 33; 223-245] Recep.: 14.02.2003
Acep.: 17.10.2003

*1920, 1930, 1940ko hamarkadetan Ipar Euskal Herrian garatutako elkarteen zein argitaratu-
riko aldizkearien azterketa dela medio, garaiko eta lekuko euskal soziabilitate guneen berri emango
dugu jarraian ditugun lerroetan.*

Giltza-Hitzak: Euskal Herria. Kultura. Soziabilitatea.

*A través del análisis tanto de las sociedades como de las revistas que vieron la luz en los años
1920, 1930 y 1940 en el Norte de Euskal Herria, daremos cuenta en las líneas que siguen de los
espacios de sociabilidad vascos de aquel tiempo y lugar.*

Palabras Clave: Euskal Herria. Cultura. Sociabilidad.

*A travers les analyses aussi bien des sociétés que des revues qui virent le jour dans les anné-
es 1920, 1930 et 1940 dans le Nord d'Euskal Herria, nous rendrons compte, dans les lignes qui sui-
vent, des espaces de sociabilité de cette époque et de cet endroit-là.*

Mots Clés: Euskal Herria. Culture. Sociabilité.

SARRERA

Euskaldunen soziabilitate guneak aztertzea dela Jardunaldi hauen helburua, gu geu elkarte kulturaletara mugatu gara, hain zuzen ere, Iparaldean edota Iparretarrekiko garatu ziren erlazio-erretara. Sasoia denaz bezainbatean, 1920. eta 30. hamarkadetan kokatu gara.

Garaiko gertakizunen berri izateko, eta orduko pertsonaiengana jotzea ezinezkoa delarik, denboraldi hartan argitaratu ziren aldizkarietara jo dugu, agerrikeriek bidea ematen baitute idazleen iritziak kontrajartzeko; tresna ezin hobeak dira, beraz, intelektual horien pentsamoldea ezagutzeko.

Aipatu hamarkadetako argitalpen garrantzitsuenak izan ziren *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Eskualduna*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *Euskera*, *Gure Herria* eta *Bulletin du Musée Basque*.

Eskualdunari dagokionez, tokiko bizimolde eta gertakariak azaltzen ditu, baita politikari eskuindar eta ezkertiarren arteko tirabiren berri eman; kultura arloko berri gutxi, ostera, libururen baten argitalpenaren oharra ez bada ere. Baztertu egin dugu lan honetarako, beraz, *Eskualdunaren* datuak.

Era berean, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, Eusko Ikaskuntzaren *Revista Internacional de Estudios Vascos* eta Euskal Museoak kalera-uriko *Bulletin du Musée Basque*ren artikulak gai zientifikoak jorratzen badituzte ere, ez dute zientifikoaren harremanen berri ematen.

Euskaltzaindiak argitaraturiko *Euskerak*, ostera, gai linguistikoetara mugatzen bada ere, euskaltzainak elkartzen zireneko aktak ere argitaratzen ditu. Akta horiek elkarrekikotasunaren daturik ematen ezbadute ere, behinik behin erabilgarriak izan zaizkigu ezagutzeko zer nolako lana burutzen zuten euskaltzain zein urgazleek, nortzuk proposatzen zituzten izendapen berriak, etab.

Eta azkenez, *Gure Herria* dugu. Hain zuzen ere, bereziki *Gure Herria* izan da erabili dugun aldizkaria lan hau osatzeko, zientziaren eremu desberdinak jorratzeaz gain, ikerlarien ikuspuntuak agertzen dituelako.

Gure Herria hilabetekari kulturala (1921-1930, 1950) euskal kultura ez adi-tuengana hurbiltzeko helburuaz izan zen argitaratua. Pierre Xarritonen hitzetan, Lehenengo Mundu Gerra bukatu-rik, gerlatik itzultzen ari ziren gudulariek *Eskualduna*tik urrund-etu eta *Gure Herria* aldizkaria prestatzeari ekin zioten¹.

Jean Etchepare *Gure Herria* argitaratzearen kontra agertu zen, *Eskualduna* nahiakoa zelakoan euskaldunei berriak eskeintzeko². Ordu-rik gutxira, ostera,

1. XARRITON, P.: "Eskualduna-ren mendeurrena Baionan", *Euskera*, 1987, Bilbo, 245-252 or.

2. LAFITTE, P.: *Euskal literaturaz*, Donostia, Erein, 1990, 282. or.

onartu egin zuen, baita lagundu ere, “oharturik halere, jende eskolatu hainitzek ez zutela *Eskualduna* irakurtzen arruntegi, hertsiegi, haurregi zaukatelakoan”³.

Dena dela, *Gure Herriak* harreman onak izan zituen *Eskualdunarekin*: “*Gure ustez segurik Gure Herria hartzen duten gutiz gehienek Eskualduna irakurtzen dute*”⁴; baita aipatu ditugun gainontzeko argitalpenekin, erredakzioak aditzera eman zenez: “*nous restons toujours en excellents relations avec le Bulletin du Musée Basque, le Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, La Revue International des Etudes Basques...*”⁵.

Beraz, *Gure Herria* da aipatu garaian eta lekuan (Iparralde), edo leku horrekiko, ekinean ari izan ziren gune kulturalen berri emango diguina: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, Euskaltzaindia, Eskualzaleen Biltzarra eta Euskal Museoa.

1. SOCIÉTÉ DES SCIENCES, LETTRES ET ARTS DE BAYONNE

Société des Sciences et Arts de Bayonne elkartearen kideak 1873ko azaroran bildu ziren lehenengoz, Baionan, zientziaren arlo guztiak jorratzearen: antropologia, flora, fauna, geologia, arkitektura, literartura, etab⁶. 1922an *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* bereganatu zituen *Société Bayonnaise d'Etudes Régionales* elkarte, izen berria hartuz: *Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne*, “*pour mettre fin à une situation paradoxale: coexistence à Bayonne de deux Sociétés ayant le même but*”⁷. Azkenez, elkarteak *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* izena berreskuratu zuen 1932an.

Paul Courteaultek *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkartearen goraipamena egin zuen (“*ne peut-on qu'admirer le bel effort que vient de faire la Société des Sciences, Lettres...*”⁸) eta Laurent Apestéguyren aburuz, txalogarriak ziren *Société* bultzaturiko ikerkuntzak (“*Nous recommandons chaudement à tous nos lecteurs la vaste et intelligente entreprise que la Société...*”⁹), hala nola Louis Colas elkartekidearen esku utzitakoa, Iparraldeko inskripzio guztiak bil zitzen.

3. Ibídem

4. P. ITHURRALDE (P. Lafitte): “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1932ko iraila-urria, 429-433 or.

5. La Rédaction: “Le coin du liseur”, *Gure Herria*, 1932ko uztaila-abuztua, 379-384 or.

6. Ibídem

7. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921, 214. or.

8. COURTEAULT, Paul: “L'art au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1926ko urtarrila, 5-8 or.

9. L. A.: “Ilabetekoa. Hil Harriak”, *Gure Herria*, 1922ko iraila, 240. or.

Piarres Lafittek Sociéték kaleratzen zuen aldizkari interesgarriaren berri eman zuen: *“Le Bulletin de la Société Sciences, Lettres et Arts de Bayonne se présente toujours aussi dense et aussi intéressant”*¹⁰.

Horrekin batera, hainbat intelektualek Louis Colasek Sociétérako burutu zuen lana –Iparraldeko inskripzioen bilketa– laudatu egin zuten:

Jean Barbierrek “docte M. Colas”¹¹ deitu zuen.

Paul Courteaultek Colasen irmotasuna azpimarratu zuen:

*poursuivies... avec une ardeur et une conscience scientifiques qu'on ne saurait trop louer*¹².

Charles d'Elbéek eskainitako laguntza eskertu zion Louis Colasi:

*Il m'a fait l'honneur de lire mes articles et voulant –avec grande obligeance– me venir en aide*¹³

Henri Gavelen aburuz “Savant collègue”¹⁴ zen Colas.

Georges Hérellek Colasi desadostasunen bat agertu bazion ere (“Nous estimons que l'interprétation proposée par M. Colas se heurte à deux objections péremptoires...”¹⁵), gustuko izan zuen: “C'est dans la *Tombe basque* elle-même que nous avons, croyons nous, trouvé le mot de l'enigme”¹⁶.

Jean Lamarqueren hitzetan: “conscientieux”¹⁷ eta “artiste qui est”¹⁸.

Léon Lassallek, ostera, Louis Colasen ospea gutxitzen saiatu zen Gure Herrian argitaraturiko artikulu batez:

Ez hargatik bethi jakintsuner fida! Ezen erran behar deutzuet neure harritzea irakurtu ditudalarik, Musde Colas, Baionako Lyceko eskola emaille ezin gehiago jakintsunak ager-arazi idazte bate-

10. ITHURRALDE, P.: “Le coin du liseur”, *Gure Herria*, 1933ko urtarrilla-otsaila, 45-49 or.

11. BARBIER, J.: “Ichtorio-Michterio. Laminak”, *Gure Herria*, 1932ko iraila, 558-563 or.

12. COURTEAULT, P.: “L'art au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1926ko urtarrilla, 5-8 or.

13. D'ELBÉE, Ch.: “Encore Perkain eta Gaskoïna”, *Gure Herria*, 1923ko iraila, 546-558 or.

14. GAVEL, H.: “Un pèlerin de Saint-Jacques au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1922ko urria, 579-588 or.

15. HÉRELLE, G.: “Essai d'interprétation d'une stèle discoïdale”, *Gure Herria*, 1925eko apirila, 221-224 or.

16. *Ibidem*

17. LAMARQUE, J.: “Le Pays Basque. Histoire, Langue, Civilisation”, par Pierre Arizpe, *Gure Herria*, 1929ko maiatza-ekaina, 264-267 or.

18. LAMARQUE, J.: “Petite histoire du Pays Basque”, par J. Nogaret, *Gure Herria*, 1923ko iraila, 377-381 or.

an, hitz haukiek: Situé au milieu des bois... la hameu méritait bien d'être appelé MONTAGNE noir". Baditake, Larramendy-ren ondotik dion bezala, erran eta irakurgai zaharretan, arana dela mendia zeresan hitz bat nahiz zuek eta nik uste ginuen bethidanik arana lur chabal ideki bat, erdarat plaine edo vallée.... zer nahi gisaz ez mendia¹⁹

Philippe Veyrinen ikuspuntutik: "A la fois esprit érudit et cultivé, doué d'une intelligence perspicace et d'un jugement prudent"²⁰.

Baina ikus dezagun zer zioten intelektualek *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkartearen ihardun zuten gainontzeko jakintsuez.

Philippe Veyrinek intelektualki uste osoa zuen Jean Baptise Daranatzengan:

C'est donc comme d'habitude, à la minutieuse érudition de M. Daranatz que je continuais à accorder de préférence toute ma confiance²¹.

Michel Etcheverry Henri Courteaulteren jakintza nabarmendu egin zuen: "*Une communication très érudite –et très goûtée– sur l'origines des marchés basques*"²².

Joseph Nogareten *Une nouvele histoire de Saint-Jean-de-Luz* liburu berriaren aurkezpena eta gomendio egin zuen Philippe Veyrinek ("se recommande des mêmes mérites que le précédent"²³), zuzenketaren bat egin bazion ere²⁴.

Jean Lamarqueren ustez, Nogaretek "a parfaitement atteint"²⁵ *Petite Histoire du Pays Basque* libururako zuen helburua, hau da, "Donner au grand public, sur l'histoire des Basques quelques notions succinctes, mais rigoureusement exactes"²⁶.

19. Ikertzailea (L. LASALLE): "Haran-beltz", *Gure Herria*, 1932ko martxoa-apirila, 127-131 or.

20. VEYRIN, Ph.: "Une oeuvre d'art. La tombe basque par Louis Colas", *Gure Herria*, 1925eko urtarrila, 26-32 or.

21. VEYRIN, Ph.: "Un évêque natif, d'Aïnhua: Mgr. Jean de Labartette", *Gure Herria*, 1937ko urtarrila-martxoa, 48-55 or.

22. ETCHEVERRY, M.: "Autour de quelques marchés du Labourd", *Gure Herria*, 1926ko azaroa, 641-651 or.

23. VEYRIN, Ph.: "Une nouvelle Histoire de Saint-Jean- de -Luz", *Gure Herria*, 1926ko maiatza, 318-320 or.

24. "Il y a lieu de rectifier ici une affirmation de M. Nogaret. Celui-ci à la page 55 de son *St-Jean-de-Luz* attribué à Bertrand Detcheverry de Bayonne. Il la faut rendre... à Detcheverry Brisquet", VEYRIN, Ph.: "L'art au Pays Basque. L'oeuvre d'un Ferronnier Luzien au XVIIIe siècle", *Gure Herria*, 1927ko iraila-urria, 426-431 or.

25. LAMARQUE, J.: "Petite histoire du Pays Basque", par J. Nogaret, *Gure Herria*, 1923ko iraila, 377- 381 or.

26. Ibidem

Henri Gavelek Antonin Personnazi eskertu zion eskaintako laguntza (“aimablement signalé par M. Antonin Personnaz”²⁷)

Piarres Lafittek nabarmendu zuen “*l’infatigable érudition de notre éminent collaborateur, M. René Cuzacq*”²⁸.

Azkenez, Maurice Olphe Galliard idazkari adjuntuaren aurkezpen ezkorra egin zuen Laurent Apestéguyk: “*Un écrivain qui ne nous aime guère*”²⁹.

2. ESKUALZALEEN BILTZARRA

XX. mendearen hasieran zenbait euskalzalek euskara estandarra sortuko lukeen euskal akademia eratzeko beharra ikusi zuten. Helburu horrekin bildu ziren 1901ean Hendaian eta 1902an Hondarrribian, baina, akademia sortu ezik, federakuntza literarioa eratu zuten, Eskualzaleen Biltzarra deituz. Euskal akademiarena proiektua ez zen zertu 1919 arte, aurrerago ikusiko dugun legez.

Eskualzaleen Biltzarraren kideak urtean bospasei bider biltzen ziren *Cafe du Grand Balconen*, lehenengo pisuan. Oso gutxitan garaiz hasten ziren bilerotako lankideek (“*Orenarekin hoin tinko bagine, nor gutarik eskualdun egiazkoa?*”³⁰) euskaraz hitz egiten zutela azpimarratu zuen Jean Etchepare lehendakari ohiak (“*Hanitzek sinetsiko ez dutena, eskuaraz mintzatzen ere bai urthetik urthera gehichago*”³¹); aldatuz zihoan, antza, zortzi urte lehenago Jules Moulierek salatu zuen erdaraz aritu izanaren egoera:

Lengo egunean, Euskaltzaleen-Biltzarrak urteko egiten duen batzarreko dei bat artu genuen. Itzik ere ez zekarren euskeraz... Guzia prantsesez. Zer ikusi bear ote degu oraindik! Frantsesa laket zakoteneri erranen diotet: A bon entendeur salut³².

Eskualzaleen Biltzarra arduratu zen batez ere “*de la conservation et de la diffusion de l’euskara*”³³. Bileretan ez ziren gai politikoez ari, aurpegi eman behar izan bazieten ere politikaz ari zireneko zurrumurruei:

27. GAVEL, H.: “A propos du Tambourin de Gascogne”, *Gure Herria*, 1924ko otsaila, 65-67 or.

28. ITHURRALDE, P.: “Le coin du liseur”, *Gure Herria*, 1933ko urtarrilla-otsaila, 45-49 or.

29. APESTÉGUY, L.: “L’ame basque et la littérature actuelle. Conférence donné au Grand Séminaire de Bayonne le jeudi 5 février 1925”, *Gure Herria*, 1925eko apirila, 210-219 or.

30. ETCHEPARE, J.: “Mendiz hunandian. Baionan”, *Gure Herria*, 1929ko martxoa- apirila, 177-184 or.

31. *Ibidem*

32. Oxobi: “Bertzen irakurgaietan. Euskaltzaleak Donibane-Lohitzunen”, 1921eko urria, *Gure Herria*, 531-532 or.

33. “L’Académie basque devra rester absolument indépendante de la Féc. Litt. Basque, la première s’occupant de l’étude de la langue et de l’unification des dialectes et la seconde de la conservation et de la diffusion de l’euskara. La F. L. B. est une association destinée, ce me semble, à durer et à prendre un grand développement, tandis que le Congrès pour l’ortographe est une association provisoire qui est née au mois de Septembre à Hendaye et qui mourra l’an prochain à Fontarrabie”,

Eskualzaleen Biltzarra ez du politika eitzen duten saltsatik jastatu ere nahi... Ez gira, erdaldun eta, entzuna dutanaz, eskualdun zenbeitek girela derasatena: Autonomistes-Séparatistes. Hein batean, gure chokhoan behaitzgorik gabe, Gureak Gure nahi ditugu, bertzerik ez³⁴

Eskualzaleen Biltzarrak lehiaketa literarioak antolatzen zituen; saridun suertatzea ez zen edozein gauza, adierazpenok erakusten duten moduan:

Jules Moulieren ikuspuntutik, P. Etcheverry lapurtarra *“Ez du, egia erraiteko, eskualtzain batek bezen garbiki itzulikatzen eskuara...”*³⁵, baina *Laborien Gidaria “Euskaltzaleen-Biltzarreko baimenarekin agertu du”*³⁶; ez zen txarra izango, beraz, Eskualzaleen Biltzarraren onespena duenez gero.

Piarres Lafittek azaldu zuen legez, Eyhéramendyren euskara ikasteko metodo ausartak erakarri ditu *“l’estime, la reconnaissance et les bonnes graces de l’Eskualzaleen Biltzarra”*³⁷.

Lafittek Léonen liburuaz: *“Léon Jauna aphezak lan eder eta ona egin dauku... Eskualzaleen Biltzarrak bortz ehun libera eman diozkanez geroz garrait-sari”*³⁸.

Eguerdi aldera, Maurice Souberbielle kideak ekarritako “Porto-ko arnoa” dastaturik (*“Ez dut erranen, arno harek, edo bertze zerbaitek ez dituala noiztenka baztertzen Dassance buruzagiaren sail hertsitik; bainan ez gira karrikat atzeratzen”*³⁹), bilerak aurrera jarraitzen zuen, hainbat gai jorratuz. Eurotariko batek susmoa sortu zuen Etcheparengan, Euskaltzaindiaren parekoa Iparraldean sortzeko asmoa zuela Dassancek:

Badut beldurra Dassancek buruan daukan gure bilkuratik egitea, zonbait urthe goiti-beheti, Academiaño bat, Bilbaokoak alabatzat onhar lezakena mendiz hunandian. Hola behar litakela, ba segur; holako izanen ere dela noizbait, ez dut ene aldetik bederen etsitzen⁴⁰.

Dena dela, Euskaltzaindiaz hurrengo puntuan hitz egingo badugu ere, Akademia horren atala Iparraldean sortzeko nahia aspalditik zetorren: 1922ko urria-

Broussainek Azkueri bidalitako eskutitza, IRIGOIEN, A.: “Del epistolario de R. M. de Azkue” *Euskera*, 1957, 362-363 or.

34. Oxobi: “Gureak Gure”, *Gure Herria*, 1938ko uztaila-iraila, 204-205 or.

35. Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 466. or.

36. Ibídem

37. LAFITTE, P.: “Tribune libre”, *Gure Herria*, 1929ko uztaila-abuztua, 380. or.

38. LAFITTE, P.: “Leon Jaun Aphezak eskuaralari itzuli duen ‘Jesu-Kristoren Imitationeaz’ Jaun kechu bati bi hitz”, *Gure Herria*, 1928ko martxoa-apirila, 105-112 or.

39. ETCHEPARE, J.: “Mendiz hunandian. Baionan”, *Gure Herria*, 1929ko martxoa- apirila, 177-184 or.

40. Ibídem

ren 27ko Euskaltzaindiaren bileran, Resurrección M^a de Azkue lehendakariak Pierre Lhanderen eskutitza irakurri zuen, non eskatzen zituen irizpideak Iparraldeko euskaltzain eta urgazleak Iparrean bertan elkar zitezen. Aho batez erantzun zioten bildutako euskaltzainek: “*Euskaltzaindiak Bidasoatik aruzko euskaltzain ta urgazleen biltzako eskubidea ezin uka dezake*”⁴¹, baita zehaztasunak eskatu Lhanderi⁴². Azaroaren 27ko bileran, argitasunik ezean, “*ez da gai onetzaz erabakirik artu*”⁴³.

Ez dugu, hala ere, proiektu horren jarraipenaren notiziarik izan.

3. EUSKALTZAINDIA

1918an Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako diputazioak Oñatin bildu ziren, euskal kultura oinarri eta helburu harturik. Batzar hartako emaitzei iraukortasuna eman nahian erakunde bat sortu zuten: Eusko Ikaskuntza. Hain zuzen ere, Eusko Ikaskuntza izan zen ikuskatu egin zuena euskal akademia sortzeko araudia, 1919ko urtarrilean onartuz.

3.1. Batua sortzeko Euskaltzaindiaren ekintzak

Euskaltzaindiaren betebeharr nagusia izan zen euskara estandarra sortzea, Euskal Herriko tokian tokiko euskalkien batasuna zela medio. Horretarako burutzear zegoen lan oinarrizkoetariko bat izan zen euskal hizkuntzaren ortografia finkatzea.

Angel Irigarai euskaltzainak derrigorrezko ikusi zuen “*une ‘entente’ au sujet de quelques signes orthographiques*”⁴⁴ eta, Euskaltzaindiaren oniritzia lortuz gero, testuetara hedatu grafia estandar hori. Adibidez, Irigaraik proposatu zuen *tx* erabiltzea *-tch* eta *x* alboratuz-, baita ere *h* aspiratuaren eta dieresi grafiaren erabilpena murriztea⁴⁵. Seguru asko, Irigaraik ez zekien Pierre Lhandek beranduago jakinarazi ziona:

41. “Euskaltzaindia’ren laugarren urteko batzarak. Donosti’n, Gipuzkoa’ko Aldundi-Jauregian, 1922’ko Urila’ren 27’an”, *Euskera. Euskaltzaindia’ren lan eta agiriak*, Euskaltzaindiak eta Sendoak berargitaratua, Donostia, 1982, 48. or.

42. *Ibidem*

43. “Euskaltzaindia’ren laugarren urteko batzarak. Donosti’n, Gipuzkoa’ko Aldundi-Jauregian, 1922’ko Azaroaren 27’an”, *Euskera. Euskaltzaindia’ren lan eta agiriak...* aipatu argitalpena, 50. or.

44. IRIGARAI, A.: “Tribune libre. Sur l’orthographe de l’Eskuara”, *Gure Herria*, 1933ko martxo-apirila, 169-184 or.

45. IRIGARAI, A.: “Tribune libre. Quelques idées sur l’orthographe de l’Eskuara”, *Gure Herria*, 1932ko iraila-urria, 456-458 or.

Précisément les Basques français ont une extrême répugnance pour l'x employé avec cette valeur, parce que pour leur ancêtres x équivalait à ts et non au ch d'aujourd'hui⁴⁶.

Lafitteren erantzuna ere jaso zuen Irigarayk, urgazle luhusotarraren ikuspuntua bestelakoa baitzen:

Un vrai patriote cherche, n'est-ce pas, à conserver à son pays natal tout avantage qui le distingue de ses voisins. Or autour de nous y a-t-il une seule langue qui dispose d'une gamme d'aspirées, pareille à celle de l'Eskuara...? Au lieu de maudire ces aspirées qui leur sont propres, les basques doivent donc s'appliquer à les sauver et si l'on tient à faire de l'unité, de grâce! que ce ne soit pas par le vide!⁴⁷.

Ostera, ados zegoen Lafitte grafia zuberotarraren murrizketarekin, "le fin zuberotar" Jean de Jauréguiberryk horixe bera adierazi zion bezala⁴⁸. Azken baten, Lafitte ez zegoen euskalkiak hurbiltzearen kontra, baizik eta neurri gogoregien aurka:

Faut il abandonner toute idée de rapprochement entre les dialectes? Non pas. Et voici ce que l'on peut faire sans révolutionner la presse euskarienne: a) Que les journaux et revue du sud agréent un article écrit dans notre orthographe traditionnelle dans chacun de leur numéros. b) Que les journaux et revues basques du nord acceptent de même dans chacun de leurs numéros un article écrit dans le système de l'academié. d) le projet de calendrier bi-dialectale proposé par M. de Saint-Jayme⁴⁹ serait peut-être encore plus utile⁵⁰.

Jean Elissalde "Zerbitzari" urgazlearen ustez Iparreko euskaltzainen –eta beraz, euskalkien– presentzia urria zen euskalkien arteko gerturatze prosezua ostopatzen zuena: hamabi euskaltzainetatik Georges Lacombe, Martin Landerretche eta Pierre Lhande baino ez ziren Iparraldekoak. Ahaztuta zeukan Elissaldek, antza, Hegoaldeko Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Diputazioek zirela diru-emileak (hamabost aulkietatik hamabi aulki finantziatuz), Pablo Fermín Irigarai "Larreko"-k Elissalde "adiskide maite"-ari gogorazi zion bezala⁵¹.

46. GAVEL, H.: "Sur l'ortographe de la langue basque", *Gure Herria*, 1933ko martxoa-apirila, 173-184 or.

47. LAFITTE, P.: "Tribune libre. Orthographe", *Gure Herria*, 1932ko azaroa-abendua, 554-558 or.

48. *Ibidem*

49. "Gure urgazle G. de Saint Jayme-k egutegi bat gipuzkeraz eta lapurteraz argitaratu nai luke. Esan bear zaio: ontarako laguntzaile egokia lukela Isaak López de Mendizabal jauna", "Euskaltzaindiaren batzar-agiriak. Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1929'ko Oril-aren. 27'an, *Euskera. Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak...* aipatu argitalpena, 273. or.

50. LAFITTE, P.: "Tribune libre. Orthographe", *Gure Herria*, 1932ko azaroa-abendua, 554-558 or.

51. Larreko: "Euskaltzaindiar, itz bat", *Gure Herria*, 1927ko martxoa-apirila, 183-194 or.

Dena dela, “Larreko”-k onartu egin zuen Elissalde egotzitako salaketa, baita akusazioei goraiamenak kontrajarri: lapurtera laket zuela, hainbeste non uste baitzuen “*lapurtar idazlek beren euskarlanetan eskualdunago direla*”⁵².

Posible zatekeen, Iparreko euskaltzainen presentzia urria izan arren, bertakoen emaitzak nabariak izan. Izan ere, 1929an Henri Gavel urgazleak txosten bat osatu zuen Iparreko euskalkien ekarpenaz batuerara⁵³. Edmond Blazyk –*Gure Herria* aldizkariaren gerentea– agindu zion Gaveli delako txostena egiteko eta Jean Saint-Pierreri –urgazle eta *Eskualduna* astekariaren zuzendaria– erakutsirik, onartu egin zuen. Baina Gavelen lana ez zen balio-grarri suertatu batua Iparreko euskalkiez hornitzeko: Txostena Euskaltzaindiari aurkezturik, akademiakideek egokiago ikusi zuten baztertzea, euskaltzain aranistek gustuko ez luketelakoan⁵⁴. Henri Gavelek berak harriturik adierazi zuen: “*Les idées de Sabino Arana (qui n’était pas un linguiste) on prevalu*”⁵⁵.

Izan ere, handia izan zen aranazaleen pentsamoldearen pisua garai hartako Euskaltzaindiaren erabakietan, Iparraldeko idazleen ikuspuntuetatik urrunduz. Horrela, Lafittek aranisten idazkera atsegin ez zuenatariko bat izan zen, adierazi zuelarik Aranaren ortografia berritzailea –“*adoptée on ne sait pourquoi par l’Académie Basque*”⁵⁶– Hegoaldeko kazeta gehienetara zegoela hedaturik, Iparraldean eskura zuten bitartean “un système orthographique plus traditionnel, celui de l’Eskualduna”⁵⁷. Lafitteren aburuz, sistema tradizional horrek abantaila zuen Aranek sorturikoaren aurrean: “*De ne pas rendre illisibles les textes basques des trois derniers siècles*”⁵⁸. Azkenez, Lafitteren Aranarekiko jarrera boro-

52. *Ibidem*

53. “Gure urgazle Gavelek Euskaltzaindiari bere lan eder bat eskeñi dio. Lan onen izena: *Primera parte de la Gramática vasca, Gure Herrian* lendik argitaratua. Bañan oraingoz idazki luze bat guregana dakar, izenez: *Observaciones sobre la ortografía vasca*. Euskaltzaindiaren aburu, txosten ta iritxia nai lituzke ta *Gure-Herria*, ta *Eskualduna*-ren izenean bialtzen digu. Lan onen bidez, idazkeraren batasuna aitatzen da, Bidasoaz aruntz eta onuntzko idazleak ontan batera ibili ditezten”, “Bilbo’n Gure etxean, 1930’ko Ilbeltzaren 24’an”, *Euskera. Euskaltzaindia’ren lan eta agiriak...* aipatu argitalpena, 13. or.

54. “Arana avait écrit une livre sur la question de l’ortographe... Bien que ce traité ne concernât, en principe, que le dialecte de biscayen, les aranistes entendait en appliquer aveuglément les conclusions à l’ensemble de la langue”, GAVEL, H.: “Sur l’ortographe de la langue basque”, *Gure Herria*, 1933ko martxoa-apirila, 173- 184 or.

55. H. G.: “Le nouveau dictionnaire basque-française du Père Lhande” *Gure Herria*, 1927ko urtarrila-otsaila, 25-34 or. Hala ere, Gavelek ez zuen erabat arbuiatu Sabino Aranaren jarduera: “D. Sabino a été un animateur puissant et convaincu... malheureusement il a eu le tort d’abonder, avec une préparation tout à fait insuffisante, le dangereux domaine de la linguistique”, GAVEL, H.: “Sur l’ortographie de la langue basque”, *Gure Herria*, 1933ko martxoa-apirila, 173-184 or.

56. LAFITTE, P.: “Tribune libre. Orthographe”, *Gure Herria*, 1932ko azaroa-abendua, 554-558 or.

57. *Ibidem*

58. *Ibidem*

bildu arren, Jean Etchepareren jokaera intelektuala (“maître à écrire de tous les écrivains basques”⁵⁹) kontrajarri zion Aranaren jarduerari:

Il ne cherches pas... comme le cherche Sabino Arana, à multiplier les raisonnements subtils pour conclure à la parfaite possibilité d’une littérature basque originale. Réaliste, il se content de contribuer... à la création de cette littérature⁶⁰.

Eskola nazionalistak sustaturiko ikertze-metodo berriak arbuiatu egin zituen Piarres Lhandek ere, arbitrarioak zirelakoan; eta Sabino Aranarenaz gain, Isaac López de Mendizabalen lanak ere baztertzeko aholkua eman zuen Lhandek⁶¹.

Ordurako López de Mendizabalek *Euzkel-Egutegia* zeukan argitaratuta, gipuzkera eta lapurtera erkatuz, eta Euskaltzaindiak eredu bezala aurkeztu zion Saint Jayme urgazleari, beronek antzeko lana burutzeko asmoa agertu zuenean⁶². Erabilgarri suertatu ei zitzaion Saint-Jaymeri: “*j’effeuille, chaque jour, avec satisfaction croissante, l’Egutegia de M. López de Mendizabal*”⁶³, baina Saint-Jaymek euskalki guztien bategitea bilatzen zuen eta etsipenez onartu zuen Egutegian bi euskalki baino ez erkatu ahal izana⁶⁴.

Beraz, Isaac López de Mendizabalek lehenengo eta Frederic Saint-Jaymek beranduago, Egutegi bana idatzi zuten, gipuzkera eta lapurtera euskalkiak erkatuz. Jules Moulier “Oxobi”-k abegi ona eskaini zion López de Mendizabalen Egutegiari: “*Atseginekin hartu dugu López Mendizabal lxaka gure adiskideak eginikako Euzkel-Egutegia*”⁶⁵.

59. LAFITTE, P.: “Notre maître: M. le Dr. Etchepare”, *Gure Herria*, 1932ko maiatza-ekaina, 259-266 or.

60. *Ibidem*

61. “Il marque aussi la fin de anciennes méthodes arbitraires qui ont égaré longtemps l’activité des chercheurs et doivent nous mettre en garde contre les nouveaux procédés, également arbitraires et non moins généraux de la nouvelle école nationaliste basque (Sabino Arana, P. Soloeta, P. Arriandiaga, López Mendizabal, etc.)”, LHANDÉ, P.: “L’abbé Martin Hiribarren et son dictionnaire basque”, *Gure Herria*, 1925eko iraila, 489-503 or.

62. “Euskaltzaindiaren batzar-agiriak. Bilbo’n, Euskaltzaindiaren etxean, 1929’ko Oril-aren 27’an”, *Euskera, Euskaltzaindia’ren lan eta agiriak...* aipatu argitalpena, 273. or.

63. SAINT-JAYME: “Perennité et fusion”, *Gure Herria*, 1929ko maiatza-ekaina, 270-272 or.

64. “Propager le Basque c’est bien... mais en déterminer la fusion serait, à mon sens, une oeuvre intelligente et louable!... Ne pouvant faire rédiger un “Egutegia” en tous les dialectes basques connus, on se bornerait au Guipuzcoan et au Labourdin... Le texte Labourdin serait confié à l’un des abbés rédacteurs de l’“Eskualduna”, mais quelque peu ferré sur le Guipuzcoan... il serait répandu à profusion des deux côtés de la frontière, chez les prêtres, instituteurs, chez tous les Membres de l’“Eskualzaleen-Biltzarra”, dans les séminaires et collèges Basques, etc... La plupart en paieraient le coût (très modéré) mais dût l’Académie faire un sacrifice pour cette oeuvre méritoire de fusion”, Saint-Jayme: “Perennité et fusion”, *Gure Herria*, 1929ko maiatza-ekaina, 270-272 or.

65. Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1921eko otsaila, 134-135 or.

Jean Etcheparek, oster, Saint-Jaymek argitaraturikoari eskaini zizkion estimu hitzak: *“atseginekin irakurtu dut Saint-Jayme donapaleutar jauna berak ohartua zaikola”*⁶⁶.

Euskara estandarren finkatze prozedurarekin jarraituz, Jean Etcheparek proposatu zuen sortu berri zegoen euskara testuetan erabiltzen hasteko, hala nola, *Gure Herria* aldizkaria eta erlijio liburuetan; hau da, irakurle intelektualei zuzenduriko testuetan erabili, herritarrei eskaini baino lehen⁶⁷. Ados agertu zen Lafitte Etcheparerekin erlijiozko testuez baliatzeari zegokionez, azpimarratuz erlijio-liburuek eginkizun handia zutela euskal hizkuntza iraunaraztearen alorrean⁶⁸.

Ostera, Etchepareren asmoa kritikatu egin zuen Frédéric Saint Jaymek, tes-tuok euskalki bakarrean zeudelako idatzirik eta, Saint Jaymeren ikuspuntutik, testuak, hala nola Egutegiak, euskalki ezberdinez idaztea bide ezin egokiagoa zen euskalkien hurbilketa lortzeko⁶⁹.

3.2. Kritikak eta laudorioak Euskaltzaindiaren erabakiei

Euskaltzaindiaren jarduera bera kritikatu zuen Jules Moulierek, oraindik urgazle ez zelarik, euskararen erabilera finkatzen ari ziren euskaltzainak erdaraz zihardutelako: *“Gure eskuararen goiti behehtiez mintzo omen dire erdaraz”*⁷⁰. Oker zebilen Moulier, behinik behin Pierre Lhanderen aburuz: Elizalde, Eguskitza, Olabide eta Altube euskaltzainek, erderaren etsaiak, ez lukete bai-menik emango euskararen bestelako hizkuntzaz aritzeko: *“Ikhustekoa zen Eguzkitzaren begi beltzen tximista zorrotza, eta Aita Olabide'k xuxen botatzen zako, “Euskeraz, yauna!”*⁷¹.

66. ETCHEPARE, J.: “Eritzi eta kitzika”, *Gure Herria*, 1929ko uztaila-abuztua, 312-319 or.

67. ETCHEPARE, J.: “Espartina”, *Gure Herria*, 1927ko iraila-urria, 398. or.

68. “M. le Dr. Etchepare, peu suspect, je crois, de fanatisme religieux, reconnaissait ici-même, il y a quelques mois, le rôle capital que jouent les livres de piété pour le maintien et le développement de notre vieille langue”, LAFITTE, P.: “La nouvelle traduction en basque de l'imitation”, *Gure Herria*, 1930eko urtarrila-otsaila, 85-88 or.

69. Era honetako hitzak eskaini zizkion Saint-Jaymek Jean Etchepareri: *“J'avais eu l'idée (pas génial, Hela!) mais inédite indubitablement d'un calendrier à effeuiller, un texte Guipuzcoan, avec, parallèlement, un texte (identique) Labourdin... Mais M. J. Etchepare a décidé que pas un lecteur sur cent.. parmi les Basques-Français ne mordrait au Guipuzcoan! C'est net et bien trachant! Il me permettra de croire que pour élaborer ce verdict pesimiste basé sur un calcul de probabilités ... , il n'a pas du soumettre ses méninges à une trop rude épreuve!”*, Saint-Jayme, F. de: “Linguistique”, *Gure Herria*, 1929ko iraila-urria.

Hona hemen Etchepareren erantzuna: *“Saint Jayme jauna.. erakutsi dauku odol suharreko gizona dagola bethi. Zaartzaroan sortu dauku, arren, bere gogoko ume bat.. Ene iduriko, eztabadaz gabiltzan egutegiak urthe andana handisko baten ondotik baizen ez ditu erroak osoki eginen jende chehearen buru bihotzetan”*, Etchepare, J.: “Erantzuna”, *Gure Herria*, 1929ko azaroa-abendua, 504-507 or.

70. Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1921eko otsaila, 134-135 or.

71. LHANDE, P.: “Eskuara eta eskualtzainak”, *Gure Herria*, 1921eko martxoa, 152-154 or.

Euskara estandarra finkatzeari zegokionez, argi ikusi bazuten ere idatzizko testuek zeregin garrantzitsua zutela, arazoa sortu zen erabaki orduko nork mol-datu behar zuen euskara berri hori.

Idazleek Euskaltzaindiari eskatu zioten hitz sorta berria bildu edo sortzeko. Azkue lehendakariak euskaltzainei eskaria helarazi zienean, akademiakide gehienek agindua onartu zuten; Julio Urquijo era Georges Lacombek, ostera, honako erantzuna eskaini zioten Azkueri:

Ez duela Euskaltzaindia itz-beri orien sortzaile izan bear; baizik idazle berak ta eriak sortu ta pixtuarazi bear dituztela⁷².

Eta nortzuk ditugu euskaltzain erantzunkor horiek?

Jean Barbierek Urquijoren emaitza zientifiko handia azpimarratu zuen: "J. de Urquijo nous révélera tout cela et bien d'autres choses encore"⁷³.

Charles d'Elbéek Julio Urquijoren "haute compétence"⁷⁴ nabarmendu zuen.

Henri Gavelek Urquijoren artikulu "d'amples renseignements"⁷⁵ aipatu zuen.

Gilbert Guillaume-Reicherek: "documents de l'époque au milieu desquels le meilleur guide est Don Julio de Urquijo"⁷⁶.

Lafitteren ustez, bai Julio Urquijo bai Georges Lacombe gizon jakintsuenak ziren euskal gaietan⁷⁷.

Albert Léonek Julio Urquijoren jakituria nabarmendu zuen: "Savant directeur du *Revue Internationale*"⁷⁸.

Philippe Veyrinek "une contribution inédite" eskertu zion Urquijo elebidunari – "aussi impeccable en française qu'en espagnol"⁷⁹.

72. "Euskaltzaindia'ren batzar-agiriak. Donostian, Aldundi-Jauregian, 28ko Ilbeltzaren 26'an", *Euskera. Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak...* aipatu argitalpena, 49. or.

73. BARBIER, J.: "Ichtorio-Michterio. Trois légendes sur Axular", *Gure Herria*, 1925eko iraila, 526-539 or.

74. D'ELBÉE, Ch.: "Le jeux de pelote basque", *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 393-401 or.

75. GAVEL, H.: "La mode des cheveux courts au Pays Basque", *Gure Herria*, 1925eko otsaila, 100-102 or.

76. GUILLAUME-REICHER, G.: "Victor Hugo et le Pays basque", *Gure Herria*, 1935eko uztaila-abuztua, 341-342 or.

77. LAFITTE, P.: "Les études basques à travers des siècles", *Gure Herria*, 1932ko martxo-apirila, 139-152 or.

78. LÉON, A.: "La langue basque hors de chez elle", *Gure Herria*, 1932ko azaroa-abendua, 524-536 or.

79. VEYRIN, Ph.: "Un bascophile ignoré. L'abbé Dominique Lahetjuan", *Gure Herria*, 1924ko iraila, 564-573 or.

Julien Vinsonek eskainitako laguntza eskertu zion Urquijori⁸⁰, zuzenketa gramatikalak egian bazizkion ere (Urquijoren eson/esok formen orde zeharo forma proposatzen du Vinsonek⁸¹).

Eta Georges Lacombez:

Charles d'Elbeek oso gizon dokumentatua zela adierazi zuen, "*sur la question et chez qui je puiserais largement*"⁸². Badirudi, hala ere, gaizki-ulerturen bat sortu zela, Pelotari buruz ari zirela biak:

Laissez-moi répondre brièvement –car je n'ai nullement l'intention d'engager un longue polémique là où il ne devait y avoir qu'une seule voix pour chanter les gloires et les beautés du Pays Basque– à M. G. Lacombe qui, dans le *Courrier de Bayonne* du 29 avril, déclare –en termes très courtois d'ailleurs– ne pas vouloir contresigner la plupart de mes assertions. M. Lacombe est parfaitement libre de ne plus me suivre dans cette étude que j'entreprends sur le jeu de pelote. Mais, par contre, il ne peut m'empêcher d'avoir recours –et je ne m'en priverai pas– à sa haute compétence en matière "pelotogique" –comme il aime d'écrire. M. Lacombe a fait paraître une série d'articles et je compte faire part à mes lecteurs des découvertes que j'y ferai⁸³.

Henri Gavelek ados agertu zen Lacomberen oharrekin: "*M. Georges Lacombe me fait remarquer très justement que les bascologues ont souvent négligé de noter la forme heskuara*"⁸⁴.

Piarres Lafittek eskainitako laguntza eskertu zion: "*M. Lacombe nous a fait très aimablement remarquer que les Pritiae sont un étude simplement descriptive*"⁸⁵.

Eta Albert Léonek Lacomberen arlo linguistikoko gaitasunak goratu zituen:

Personne, à coup sûr, n'a mieux connu avant lui (Lacombe) les diverses nuances qui caractérisent les multiples variétés dialectales de l'eskuara, personne ne les a mieux connus depuis, si ce n'est M. l'abbé Azkue⁸⁶.

80. VINSON, J.: "Ma bibliothèque basque", *Gure Herria*, 1922ko uztaila, 372-379 or.

81. VINSON, J.: "Le mot Apez et Racine P", *Gure Herria*, 1923ko ekaina, 382-385 or.

82. D'ELBÉE, Ch.: "Les jeux de pelote basque. Le longue Paume et la courte Paume ancêtre du Rebot et du Pasaka", *Gure Herria*, 1921eko azaroa, 686-688 or.

83. D'ELBÉE, Ch.: "Les jeux de pelote basque", *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 393-401 or.

84. GAVEL, H.: "Sur l'orthographe de la langue basque", *Gure Herria*, 1933ko martxo-apirila, 173-184 or.

85. LAFITTE, P.: "Un infixe douteux", *Gure Herria*, 1928ko maiatza-ekaina, 255-257 or.

86. "L'état actuel des études basques. Extrait de la leçon d'ouverture de cours sur la littérature basque, professé à la Faculté des Lettres", par M. Albert Léon, *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 446-461 or.

Baita Lacomberi eskertu ere egindako zuzenketak: “Je suis heureux que M. Lacombe m’a signalé quelques inexactitudes”⁸⁷

Harira bueltatuz, hainbat intelektualek adierazi zuten Euskaltzaindiak sortzen ari zen euskara batua ulergaitz suertatuko ziela herritarrei. Konkretuki, kritikak jaso zituzten euskaltzainek Iparreko pentsalariengandik, are gehiago Euskaltzaindiaren izenean bertako idazleei adierazi zienean (“*Euskaltzaindia*’ren idazkera artzen ez badute, ez dutela beronen laguntzarik izango”⁸⁸):

Laurent Apésteguyren ustez, euskaltzainek “mintzaira zailchkoa derabilate, arruntean nekez deramakeguna”⁸⁹, Azkue Lehendakariaren hizkeraz badio ere: “Mintzaile choragari hau, aho aberatsekoa, eskuara itzulikatuz, zalu eta biphil dabilana”⁹⁰.

Jean Etchepare euskara berriak mintzaira zaharra hiltzera eramango zuenen beldur zegoen⁹¹.

Albert Léonek, batua konprenigaitzaren aurrean, *Eskualdunak* erabiltzen zuen euskara laudatu egin zuen:

Redigé dans une langue très soignée, non moins éloignée des fantaisies théoriques de l’Euzkadi et des Nationalistes et de leurs inventions de grammairiens”⁹².

Jules Moulierek euskara berria gaitzetsi egin zuen, intelektualei baino ez zuzendurik zegoelakoan⁹³.

Egia esan, Euskaltzaindiaren erabakiak beti gogoz onartu ez bazuten ere, Resurrección M^º de Azkueren lana goratu egin zuen idazle askok:

Donostia musikariarentzat “travailleur infatigable”⁹⁴ zen Azkue

87. Ibidem

88. “Euskaltzaindia’ren hirugarren urteko batzarak. Donosti’n, Aldundi-Jauregian, 1922’ko Ori-la’ren 23’an”, *Euskera. Euskaltzaindia’ren lan eta agiri...* aipatu artigalpena., 34. or.

89. L. A.: “Ilabetekoa”, *Gure Herria*, 1921eko martxoa, 197. or.

90. L. A.: “Ilabetekoa”, *Gure Herria*, 1921eko apirila, 255. or.

91. ETCHEPARE, J.: “Eritzi eta kitzika”, *Gure Herria*, 1929ko uztaila-abuztua, 312-319 or.

92. “L’état actuel des études basques. Extrait de la leçon d’ouverture de cours sur la littérature basque, professé à la Faculté des Lettres”, par M. Albert Léon, *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 446-461 or.

93. Oxobi: “Ez dut erran nahi alferretan ari direla Euskaltzainburu jaunak. Ez. Gora, biziki gora baitabiltza ordean idazle horiek. Gaudela gu, chumeen, aphalen zerbitzuko; euskaltzainburuak, aldiz, handienen argitzale”, “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1922ko urtarrila, 49-52 or.

94. DONOSTIA, J. A. de : “Quelques caractéristiques de la chanson basque”, *Gure Herria*, 1923ko azaroa, 677-689 or.

Henri Gavelek adierazi zuen Azkueren Hiztegiak: “conçu dans un esprit à la fois scientifique et pratique”⁹⁵.

Lacombek, Azkueren Hiztegiak adierazi bazuen ere: “il a l’immense mérite de n’avoir négligé aucun des dialectes”⁹⁶, iturreri dagokienez, idatzizkoetatik erdia baino ez erabiltzea egotzi zion eta ahozkoetatik ere gutxi.

Albert Léonen aburuz “auteur biscayen du plus complet des dictionnaires basques.. depuis quelques années”⁹⁷.

Jules Moulierek zioenez, “lan bat gaitza, hiztegi hori, gizon batek bururat-zeko”⁹⁸.

Eta Azkueri leporatutako akatsekin hasi garela, bazeuden uste izan zutenak Hiztegiak gehiegi islatzen zuela Azkueren nortasuna, azalduz: “Azkue no bazcuence, pero azcuence”⁹⁹, eta Hiztegiak “Diccionario Azkuenze”¹⁰⁰.

Piarres Lafittek Azkueren lana laudatu zuen: “Le roi des dictionnaires basques... dont on ne aurait trop proclamé la clarté, la richesse, la précision, l’élégance”¹⁰¹, gaineratuz hala ere: “Assez incomplée, déjà introuvable et d’un manie-ment pas commode”¹⁰².

Eta Piarres Lafittek adierazi zuena adierazi zuela, Pierre Lhandek ere Hiztegi bat osatzeari ekin zion, bakarrik Iparraldeko euskalkiez horniturik¹⁰³. Lhanderen Hiztegiak daturen bat ematearren:

95. GAVEL, H.: “Grammarie pratique de la Langue Basque. Introduction”, *Gure Herria*, 1922ko otsaila, 87-93 or.

96. LACOMBE, G.: “Le dictionnaire basque-français”, *Gure Herria*, 1938ko urria-abendua, 328-332 or. Artikulu hartan Lacombek hauxe azaltzen du Azkueren Hiztegiak: “peut être considéré comme presque complet pour le biscayen, assez, abondant pour le guipuzcoan et très en progrès sur tous ses prédécesseurs en ce qui concerne les parlers navarrais d’Espagne et les cis-pyrénéens”.

97. LÉON, A.: “L’état actuel des études basques”, *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 446-461 or.

98. Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1923ko uztaila, 456-459 or.

99. “Zerbeit egitekotz, ez da nola-nahi egin behar eta Azcue jaunak Euskaltzaindia hala egin duela iduritzen zauku. Nun-eta ez duen bere kaskorat egin! Hori ere baditake, guzien buruan, eta orai-orai gogorat heldu zauku Iruñako gure adichkide baten hitz... gaichtoa. ‘Azcue no bazcuence, pero azcuence!’”, Zerbitzari: “Chichta eta pherekak. Euskaltzaindia”, *Gure Herria*, 1927ko urtarrila-otsaila, 67-72 or.

100. “après cet autre Diccionario Vascuenze que des malveillants ont appelé Diccionario Azkuenze, du nom de son auteur, l’abbé Azkue de Bilbao, qui aurait trop fortement projeté sa personnalité sur une oeuvre essentiellement impersonnelle”, Dibildos: “L’Abbé Maurice Harriet et sa Soeur Mademoiselle Agatha”, *Gure Herria*, 1926ko urria, 595-605 or.

101. LAFITTE, P.: “Les études basques à travers des siècles”, *Gure Herria*, 1932ko martxoa-apirila, 139-152 or.

102. Ibídem

103. Ibídem

Louis Colasek: "L'auteur a condensé avec une clarté et une netteté saisissantes l'effort accompli depuis moins de vingt années"¹⁰⁴.

Louis Dassancek adierazi zuen: "J'ai été charmé par... le roman du Père Lhande"¹⁰⁵, oharren bat gehitu bazion ere.

Dibildos Abateak susmatu zuen berritzailea izango zela: "Sera objectif tout en donant à son oeuvre un caractère nouveau, puisqu'il l'a fait non suivant la méthode"¹⁰⁶.

Louis Doursek, ostera, hiru akats aurtiku zuen *L'Emigration Basque* Lhanderen liburuan, *zakila* eta *bayonnettez* ari zela¹⁰⁷.

Dominique Dufauk: "Dans son livre admirable"¹⁰⁸

Georges Lacombek, ostera, emaitzei begiratu zien, adieraziz Pierre Lhanderen Hiztegia baliagarria bazen ere ("On y rencontre des vocables qu'on chercherait vainement ailleurs"¹⁰⁹), axolagabeki ari izan zela; izan ere, Lacomben esanetan ere: "L'auteur, excellent écrivain et orateur basque en trois dialectes, n'est en revanche que peu bascologue et pas du tout linguiste"¹¹⁰.

Jean Lamarqueren ustez, Lhande zen "un maître en l'art d'écrire"¹¹¹.

Philippe Veyrinek azpimarratu zuen "l'intéressant ouvrage du P. Lhande sur l'émigration basque"¹¹², Lhanderi azaldu bazion ere gaia lehenagotik zegoela azterturik.

104. COLAS, L.: "Contribution à l'étude des armoires du Pays Basque", *Gure Herria*, 1926ko martxoa, 145-155 or.

105. DASSANCE, L.: "Tribune libre. A propos d'Amenabar", *Gure Herria*, 1921eko abendua, 729-731 or.

106. DIBILDOS: "L'abbé Maurice Harriet et sa Soeur Mademoiselle Agatha", *Gure Herria*, 1926ko urria, 595-605 or.

107. "Procès-verbaux des scéances", *Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne*, 1920, 156 or.

108. DUFAU, D.: "La Basquoise et les traditions", *Gure Herria*, 1936ko urtarrila-otsaila, 56-66 or.

109. LACOMBE, G.: "Le dictionnaire basque-français", *Gure Herria*, 1938ko urria-abendua, 328-332 or.

110. Ibidem

111. LAMARQUE, J.: "Bibilis", par Pierre Lhande, *Gure Herria*, 1926ko maiatza, 310-315 or.

112. VEYRIN, Ph.: "Un bascophile ignoré. L'abbé Dominique Lahetjuzan (1766-1818)", *Gure Herria*, 1923ko azaroa, 657-665 or.

4. EUSKAL MUSEOA

1923an Baionako udalak *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* ri eskatu zion Euskal Museoa antola zezan¹¹³. Helburua: “*Sauver de l’oubli, des ravages du temps, du progrès industriel... tout ce qui est pour un peuple la caractéristique de son pays*”¹¹⁴. Eta sortu zenetik, Museoa eta *Société* elkartearen arteko harremanak etengabeak izan ziren, William Boissel zuzendariak urtero ematen baitzuen Euskal Museoaren ekintzen berri *Société*koek hilabetero burutzen zuten batzarretan.

Museoaren zuzendaria izateaz gain, William Boissel Batzorde Iraunkorraren lehendakaria izan zen eta idazkaria Philippe Veyrin.

Veyrinek itxaropenez espero zuen Euskal Museoaren sorrera:

Si l’on considère l’intérêt provoqué par la création du Musée Basque de Bayonne, il est permis, croyons nous, d’avoir son espoir¹¹⁵.

Baita Laurent Apestéguyk ere abegi ona eskaini Museo berriari:

Hemen dabilzan arrotzen deskantsatzeko eta argitzeko, chede ona! Eskualdunentzat ere ez liteke kalte ikustea zer artararik dauzkuten biltzen eta ohoratzen, hoin errecheki galtzerat uzten ditugun ohidura ederrak... Musée horren laguntza ttipia dukegu, dena ere on¹¹⁶

Kexu azaldu zen Laurent Apestéguy, hala ere, Baionan ezarri ezean, biarne-sek euren eskualdean jarri nahi zutelako Euskal Museoa:

Baionan da bertzela horren tokia. Biarno’n ere, mendiz auzo garelakotz, gure puska biltzen ari direla, diote; hango chedea bethi: “gure gure, bertzeena erdizka!”¹¹⁷.

Piarres Lafitte fidagaitz hitz egin zuen sorrera berriaz:

Orai artinokoan jaun horieri ez dakotegu itzalño bat baizik ezagutzen: eskuara ez dakite Espainiako erregek baino gehiago eta eskuaraz idazterat

113. “*Au mois de Mars 1922, le maire proposa à la Société des Sciences, Lettres, Arts et Etudes Régionales de Bayonne, par l’intermédiaire de son président, M. de Marien, de se charger de la création et de l’administration d’un musée basque, à l’instar de sociétés savantes d’autres villes, qui avaient voulu accepter un semblable mandat*”, J. NOGARET: “Les origines du Musée Basque”, *Bulletin du Musée Basque*, 1925, 6. or.

114. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1932, 141. or.

115. VEYRIN; Ph.: “Pour l’étude du Folk-Lore Basque”, *Gure Herria*, 1923ko martxoa, 126-127 or.

116. L. A.: “Ilabetekoa. Musée Eskualduna”, *Gure Herria*, 1922ko maiatza, 298. or.

117. *Ibidem*

lerritzen direlarik, huna ertsulako hitzalde saltsa eskaintzen daukuten jastatzeko: Atehan pasatzen dubenak bere etchean da¹¹⁸.

Baina emaitzak ikusirik, William Boissel Museoaren zuzendariaren jarduera laudatu egin zuen Lafittek:

M. le Commandant, sourd à toute parole de découragement attentif à ménager des susceptibilités après tout légitimes, a mené les opérations avec une constance toute militaire¹¹⁹.

Baita goraiatu ere Museoak argitaratu zuen *Bulletin du Musée Basque* aldizkaria:

Le Bulletin du Musée Basque a revêtu, la dernière fois qu'il a paru ses habits de grande fête: un numéro spécial en hommage au Pays Basque, fort artistiquement présenté, très varié, facile de lire, bref un petit cher-d'oeuvre dont nous félicitons M. le Commandant Boissel¹²⁰.

5. ONDORIOAK

Orain arte ikusi dugun bezala, 1920. eta 30. hamarkadetako Iparraldean eragina izan zuten topagune kultural garrantzitsuenak izan ziren: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, Eskualzaleen Biltzarra, Euskalzaindia eta Euskal Museoa.

Jakina, elkarteon kide guztiek ez zuten neurri berean parte hartu bilakaera kulturean. Euskaltzaindiaren bileretan parte hartzeari dagokionez, adibidez, hamabi euskaltzainak baino ez ziren bileretara joaten, joanez gero. Urgazleek, 42 guztira, ikerketak burutzen zituzten Euskaltzaindirako eta emaitzak eskutitz edo idazkiak zirela medio helarazten zuten Euskaltzaindira.

Aurreko puntuetan eskaini dugun informaziora mugatuz, Resurrección M^a de Azkue bizkaitarra, Jean Elissalde "Zerbitzari" behenafartarra, Georges Lacombe eta Pierre Lhande baionatarrak eta Donostiako Julio Urquijo euskaltzainak eragile nagusiak izan ziren garaiko sare kulturean; eta urgazleengandik, Gipuzkoako Isaac López Mendizabal; Behenafarroako Jean Etchepare eta Frédéric de Saint Jayme; Jean Baptiste Daranatz, Louis Dassance, Piarres Lafitte eta Jules Moulier "Oxobi" lapurtarrak; eta Iruñako Angel eta Fermin Irigarai "Larreko". Deduzko euskaltzainak ziren Julien Vinson eta Henri Gavelek (deduzkoa 1933tik) ere eskuhartze nabaria izan zuten aztertzen ari garen garaian.

118. Aztapar (P. LAFITTE): "Phereka eta Zimiko", *Gure Herria*, 1923ko apirila, 257. or.

119. LAFITTE, P.: "Les études basques à travers des siècles", *Gure Herria*, 1932ko martxo-apirila, 139-152 or.

120. ITHURRALDE, P. (P. Lafitte): "Le coin du liseur", *Gure Herria*, 1933ko urtarrila. otsaila, 45-49 or.

Urgazleak Euskaltzaindiaren aldizkako bileretara joaten ez baziren ere, aipatu beste elkarteren bateko batzarkideak ziren:

Jean Etchepare, Isaac López de Mendizabal eta Jules Moulier: Eskualzaleen Biltzarra.

Jean Baptiste Daranatz, Henri Gavel, Angel Irigarai (lau bider baino ez), eta Albert Léon: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*.

Louis Dassance: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta Eskualzaleen Biltzarra.

Beraz, urgazleok Euskaltzainditik at sartzen ziren harremanetan intelektualekin; lan honen zehar zientifiko hauekiko harremanak egiaztatu ahal izan ditugu:

*Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*ko William Boissel (Euskal Museoaren zuzendaria), Louis Colas, Courteault, Louis Dours, Georges Hérelle, Jean Lamarque (bileretara behin baino joan ez bazen ere), Joseph Nogaret, Antonin Personnaz, Georges Hérellekin; eta Eskualzaleen Biltzarreko Dominique Dufaurekin.

Gure lanean agertzen diren gainontzeko intelektualek maiztasun gutxiago hartu zuten parte elkarrean bileretan edo inoiz ere ez: Michel Etcheverry (Gure Herria elkartearen¹²¹ bi bileretan egona zen), Eyhéramendy, Jean Jauréguiberry (ohiko kidea Gure Herria elkartearen bileretan), Laurent Apestéguy, Jean Barbier (Eskualzaleen Biltzarrearen bilera baten egon zen), Charles d'Elbée, Dibildos, Aita Donostia (Eusko Ikakuntzaren¹²² bileretan hartzen zuen parte), Gilbert Guillaume-Reicher (Gure Herria elkartearen bi bileretan egon zen), Léon Lasalle eta Philippe Veyrin.

Aipatu berri ditugu zein intelektual topatu ditugun ekinean mugatutako leku eta denboraldian. Guztiak intelektualak izanda, batzuk nabarmentzen dira liburuak, artikuluak, teoriak, etab. sortzeagaitik eta besteak sortutakoari kritikak igortzeagaitik, laudatuz ala gaitzetsiz.

Hurrengo pausua litzateke, beraz, ikustea nortzuk izan ziren intelektual sortzaileak eta nortzuk intelektual kritikariak. Asmo horrekin osatu dugu eranskinean agertzen den laukia laukia:

121. Gure Herria elkarte *Gure Herria* aldizkari kulturaren inguruan sortu zen, 1930ean, Laurent Apestéguy, Jean Barbier, Edmond Blazy, Louis Dassance, Dominique Dufau, Jean Elissalde, Jules Moulier, Jean Saint-Pierre eta Emmanuel Souberbiellek sustaturik.

122. Eusko Ikakuntza 1918an bultzatu eta sortu zuten Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako diputazioek, euskal kultura oinarri eta helburu harturik. 1919an Eusko Ikakuntza Euskaltzaindiaren sorrera bideratu zuen.

Ikusten dugun legez, Resurrección M^a de Azkue, Louis Colas, Georges Lacombe, Pierre Lhande eta Julio Urquijo izan ziren kritika gehienak jaso zituztenak, laudoriak neurri handi batean. Ostera, Henri Gavel, Philippe Veyrin eta, batez ere, Piarres Lafitte izan ziren kritikak eskaini zituztenak; eta maiztasun gutxiagoz Charles d'Elbée, Jean Lamarque, Albert Léon, Pierre Lhande eta Jules Moulier.

Labur dezagun zer esan zieten kritikariek intelektual horiei:

Resurrección M^a de Azkue Euskaltzaindiaren lehendakariaz:

Langile sutsua, Aita Donostiak.

Azkueren Hiztegiak: zientifiko eta praktikoa (Henri Gavelek), iturri urrikoa (Georges Lacombe), argia, aberatsa, zehatza, baina osatu gabea eta erabiltzeko deserosoa (Piarres Lafitte), mamitsua (Albert Léonek), lan itzela (Jules Moulierek).

Louis Colas ikerlariak:

Idazle aditua eta zuzena (Jean Barbierek), langile gartsua eta pentsamolde zientifikoduna (Paul Courteaultek), lagunkoia (Charles d'Elbéek), jakintsua (Henri Gavelek), liburu interesgarria, baina zenbait interpretazio okerrekin (Georges Hérellek), trebea (Jean Lamarque), intelektualki ez fidagarria (Léon Lasallek), azkarra eta zuhurra (Philippe Veyrinek).

Georges Lacombe euskaltzainaz:

Intelectualki fidagarria (Charles d'Elbéek), hizkuntzalari jakintsua (Albert Léonek), lagunkoia (Georges Lacombe eta Piarres Lafitte).

Pierre Lhande euskaltzainaz:

Liburu zoragarri baten sortzailea (Dominique Dufauk), idazle eta hizlari bikaina, baina linguista eta euskalari eskas (Georges Lacombe), idazle bikaina (Louis Dassance eta Jean Lamarque), liburu interesante baten egilea (Philippe Veyrinek).

Hiztegiak: berritzailea metodoz (Dibildosek), argia (Louis Colasek).

Julio Urquijo euskaltzainaz:

Intelectual trebea (Charles d'Elbéek), artikulua mamitsua baten egilea (Henri Gavelek), jakintsua (Jean Barbier, Gilbert Guillaume-Reicher, Piarres Lafitte eta Albert Léon), lagunkoi eta berritzailea (Philippe Veyrinek), batzutan oker interpretazioetan (Julien Vinsonek).

Nabaria den legez, euskal akademiaren arduradunak izan ziren, Louis Colas ezik, kritika gehienek jasotzaileak. Ulergarria da, zeren eta, alde batetik, Euskaltzaindia 1920an jaio baitzen, hain zuzen ikertu dugun garaiaren hasieran;

ulertzekoa da, beraz, esames ugari piztea garaiko intelektualengan. Bestetik, burutzen saiatu ziren lana konplexua baitzen, hau da, euskalkien arteko hurbilketa zela medio, euskara batua sortu. Arazoetariko bat izan zen, adibidez, arnisten pentsamoldearen eragina handia, euskara batua sortaraziz Iparreko euskalkien berezitasunen kalterako. Iparraldeko intelektualek, beraz, bazuten esatekorik, eta esan zuten *Gure Herria* aldizkarian.

Ulergarria zatekeen, beste aldetik, jarduera kulturaletako partaidetza handia loturik egotea elkarte kulturaletako karguduna izatearekin. Era berean, kritikariek kontutan hartuko zituzketen sortzaileen jarduera eta iritziak igorlearen ospearen arabera, adi egongo bailitzaieke intelektualki ospea zuten agerraldi eta adierazpenen zain.

Ikus dezagun, beraz, lan honen zehar agertu zaizkigun pertsonaien karguak garaiko elkarte kulturaletan, kargudunak izanez gero:

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonnen:

William Boissel	Lehendakariorde (1923-1940)
Jean Baptiste Daranatz	Lehendakari (1930-1940)
René Cuzacq	Idazkari adjuntu (1930-1931)
Joseph Nogaret	Idazkari adjuntu (1923-1930)
	Lehendakariorde (1930-1935)
Maurice Olphe-Galliard	Idazkari adjuntu (1935-1940)
Antonin Personnaz	Lehendakariorde (1923-1930)

Eskualzaileen Biltzarran:

Albert Constantin	Lehendakariorde (1922-1933)
Louis Dassance	Lehendakariorde (1922-1925)
	Lehendakari (1926-1935)
Jean Elissalde	Idazkari (1922-1935)
Jean Etchepare	Lehendakari (1922-1925)
Jules Moulier	Idazkari adjuntu (1926-1935)

Euskaltzaindian:

R. M ^a de Azkue	Lehendakari (1918-1951)
Jean Elissalde	Euskaltzain (1930-1961)
Georges Lacombe	Euskaltzain (1920)
	Gutunzain (1923-1947)
Pierre Lhande	Euskaltzain (1919-1957)
Julio Urquijo	Liburuzain (1918-1923)
	Euskaltzain (1923-1950)

Euskal Museoa:

William Boissel	Zuzendaria
-----------------	------------

Frogagarria den legez, lan honen protagonistak ez ziren deigarri suertatu elkarteetan izandako karguaren arabea; kritika ugari jaso zuen kargudun bakarra Resurrección M^a de Azkue izan zen, hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren burua.

Kritikariei dagokienez, kultur-elkarte ezberdinetakoak ditugu: Piarres Lafitte, Albert Léon eta Pierre Lhande euskaltzainak, Henri Gavel, Jean Lamarque eta berriz Albert Léon *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*ko kideak, Eskualzaleen Biltzarreko Jules Moulier, Philippe Veyrin Euskal Museoaren batzordekidea eta Christian d'Elbée.

Beraz, eta laburbilduz, Iparraldeko euskal kulturaren eragile nagusiak 1920. eta 30. hamarkadetan, honako hauek izan ziren: Resurrección M^a de Azkue –Euskaltzaindia–, Louis Colas –*Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta Euskal Museoa–, Charles d'Elbée, Henri Gavel –Euskaltzaindia–, Georges Lacombe –Euskaltzaindia–, Piarres Lafitte –Gure Herria elkarte–, Jean Lamarque –Euskaltzaindia–, Albert Léon –*Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta Euskaltzaindia–, Pierre Lhande –Euskaltzaindia–, Julio Urquijo –Euskaltzaindia– eta Philippe Veyrin –Euskal Museoa–.

Gune kulturaleri dagokienez, batez ere Euskaltzaindiaren inguruan garatu ziren garai hartako intelektualen gogo ahalmenak eta, era apalago baten, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta Euskal Museoan.

BIBLIOGRAFIA

Bulletin du Musée Basque (1925-1935)

Eskualzaleen-Biltzarra (1905-1906, 1908-1913, 1919-1926, 1930-1936)

Euskera. Euskaltzaindiaren lan agiriak. Euskaltzaindiak eta Sendoak berargitaratua, Donostia, 1982, Donostia, 1980.

Gure Herria (1920-1936)

Revista Internacional de los Estudios Vascos. Índices de autores, de libros recensionados, de materias y de ilustraciones (1907-1936), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1977.

Société de Sciences, Lettres et Arts de Bayonne (1922-1931)